

UDAN ERE

ELKAR ZAINDU

DEZAGUN



Udaldian udalekuak ez egitearen gomendioak bat batean harrapatu gaitu aisialdian aritzen garen hainbat eragile. Uda garaia oso garrantzitsua izaten da eremu honetan jarduten dugun eragileontzat, eragile ofizial zein bolondresentzat, udak milaka haur eta neraberekin jolasean, lanean, igarotzen ditugun hezitzaile guztiontzat.

COVID 19ak eragindako krisi sozial eta ekonomikoak gogor jo gaitu guztiok, gure egunerokotasunean eragin du, baita maila emozionalean ere, sarritan beldurra gailendu den emozioa izanik. Honek blokeatu egin gaitu maiz, eta haur eta nerabeentzat egokienak ez diren mezuak helaraztera ere iritsi gara.

Arduratik edo beldurretik hartu ditugu erabakiak?

Bolada honetan haur eta nerabeak bizitzen ari diren egoerak kezkatzen gaitu, hortaz, guk arduraren alde egiten dugu, ardura kolektiboaren alde, txikia den hori, subjektu zaurgarriena, erdigunera ekarri behar dela azpimarratuz. Kasu guztientzat erabaki bakarra eta bera hartzea ez dela zuzenena uste dugu, tokian tokiko erabakiak zein neurriak hartzea proposatuz.

Aisialdiaren garrantzia aitortzera gatoz.

Sarritan, jolasa bera denbora galtzeko elementu edota lan egin osteko opari gisa deskribatzen dugu, baina ez gara ohartzen jolasa gure ingurua ulertzen ikasteko modu bat ere badela, probaz eta huts eginez (askotan era inkontzientean) sortzen dugun ikerketa zientifiko bat, edo kasuan kasu, egokitutako arauz eraikitako ariketa sozial bat. Aisialdiaren oinarria jolasa da, mundua eraikitzeko beharrezkoa den jolasa, norberarekin, lagunekin eta munduarekin harremantzeko jolasa.

Aisialdi hezitzailea ez da denbora okupatuta pasatzeko eskaintza: balioetan oinarritutako heziketa eta zaintza gunea da.

Haur eta nerabeentzat, gozamenezko testuinguru batean, bide-laguntza eta orientazioa da aisia hezitzailea. Bertan aisialdia modu osasuntsuan bizitzeko, adierazpenerako, partaidetzarako eta sorkuntzarako bideak aurkitzen dituzte. Eta aisialdiaz gozatzeko aukera haur eta nerabeen eskubidea ere badela ezin ahaztu.

Haur eta nerabeentzako espazio seguru eta hezitzaileak eskaintzeaz gain, aisialdiak familia eta lanaren arteko kontziliazioan ere laguntzen du, heldu, haur eta nerabeei euren mundu propioetan jarduteko aukera eskainiz.

Aintzat hartu gaitzatela aldarrikatzen dugu, hezkuntza ez baita eskolara mugatzen: hezkuntza ez formala ere hezkuntza da. Beraz, hezkuntzaren ikuspegi integralaz hitz egin beharko genuke eta gure bizitzetan prozesu iraunkor bezala planteatu, herria - kalea bera ere prozesu horretako eragile gisa kokatuz eta hezkuntzaren ardura herritar ororengan jarritz.

Zaintza hezitzailean sinisten dugu.

Zaintza komunitarioari, zaintza hezitzaileari bideak ireki behar dizkiogu, haur eta nerabeen zaintza ekintza komunitario eta hezitzailea bilakatuz. Herri nahiz auzoetan sareak osatu eta zaintza erdigunean jarri behar dela azpimarratzen dugu, komunitateko kide modura gure ardura ere badelako. Elkarren arteko konfiantzazko harreman parekideak eraikita, komunitate bezala saretuta, elkar zaindu dezagun.

Haur eta nerabeak ere herritarrak dira.

Jolasetik eta taldetik aritzen gara, haurrak berdinen artean harremandu, komunitatearekin sareak eratzen hasi eta herritar gisa hazi daitezen. Finean, haur eta nerabeak herritar gisa aitortuak izan behar direla aldarrikatzen dugu, orain eta hemen herritar oso, dagozkien eskubideen eta betebeharren jabe.

Jendartean ematen den arrakala sozial eta ekonomikoa agerian geratu da.

Hilabete guzti hauetan familia bakoitzak bere baliabide propioekin ikaragarritzko ahalegina egin du etxeko lanekin aurrera egiteko, elkar ezagutzeko, zein lana eta haurren zaintza uztartzeko. Egoera honek ordea, jendartean dagoen arrakala sozial eta ekonomikoa agerian utzi eta areagotu egin du.

Udarako egiten den eskaintzak arrakala hau txikitzea dakar dakar. Haur eta nerabeek udaldia berdinen artean, espazio itxietatik kanpo, kalean zein naturarekin kontaktuan igarotzea beraien eskubideen alde egitea da, familia bakoitzaren baliabide sozial eta ekonomikoak direnak izanda ere.

Gainera, udako eskaintzak haur eta nerabe askorentzat euskararen arnagune bilakatzen dira maiz, euskaraz jolastuz, euskara entzunez eta euskaraz bizitzea posible dela agerian jarritz.

Udaldirako aisialdi eskaintza anitza behar dugu, haur/nerabeentzat eta haur/nerabeekin hartuz.

Arduraz eta zaintza erdigunean jarrita jokatu behar dugu, baina ohiko udalekurik ezean alternatibak eskaintzera gatoz. Udaldi honetan haur eta nerabeentzako eskaintza definitzea beharrezkoa ikusten dugu, herri bakoitzak dituen baliabide eta errealitatetik abiatuz.

2020ko uda ez da aurreikusten genuen hura izango, baina alternatibak eta eskaintza anitzak sortzeko aukera ematen digu, ohiko udalekuen ikuspegitik aldendu eta komunitatean zein auzoz-auzoko eskaintzak osatuz. Haur eta nerabeek berdinen artean egoteko eskubidea dutelako, kaleaz goatzeko eskubidea dutelako, eta batez ere, erdigunean elkar zaintza eta maitasuna jarri behar ditugulako.

Elkar zaindu dezagun.

OINHERRI Herri Hezitzailea ekimeneko aisialdiko eragileak.